



Portaera arduratsuak garatzen
3 urtetatik 12 urtetara



Nafarroako
Gobernua

PORTAERA ARDURATSUAK GARATZEN 3 URTETATIK 12 URTETARA



Nafarroako Gobernua
Hezkuntza Departamentua

Portaera arduratsuk garatzen 3 urtetatik 12 urtetara

Testua:

M.^a Asunción Fernández Díaz
José Luis Idoate Iribarren
M.^a Carmen Izal Mariñoso
Irene Labarta Calvo

Argitaratzailea:

Nafarroako Gobernua. Hezkuntza Departamentua

Ilustrazioak eta maketa:

Amaia Vidart Taniñe

Inprimatzailea:

ONA Industria Gráfica, S.A.

ISBN: 84-235-2494-9

L.G.: NA 3.188/2003

Bultzatzailea eta banatzailea:

Nafarroako Gobernuaren Argitarapen fondoa
Komunikazio Zuzendaritza Nagusia
Navas de Tolosa, 21
31002, Iruña
Tf.: 848 427121
Faxa: 848 427123
Posta elektronikoa: fondo.publicaciones01@cfnavarra.es
www.cfnavarra.es/publicaciones

AURKIBIDEA

Sarrera	4
Zer da erantzukizuna?	6
Bilakaera alderdiak	7
Haurrentzako aholkuak	12
Gurasoentzako jarraibideak	14
Erabakiak hartzen lagundu	20
Mugak jarri	22
Laburpena eta ondorioak	24
Galdesortak	27
Eranskina	37

Gurasoei maiz ondoko hauek bezalako hitzak entzuten zaizkie:

"Etxean ez du ezer egiten".

"Guztia ahaztu egiten zaio".

"Gain-gainean ez banago, ez du ikasten".

"Bere gela hankaz gora dago".

Egoera hauek gertatzen badira, arrazoa izan daiteke seme-alabei ez zaiela biderik eman euren adinari dagozkion jarrera arduratsuak ikasteko, edo bestela, euren ezaugarriengatik, dagozkien erantzukizunak ez dituztela beren gain hartu nahi.

Bi arrazoik eraman gaituzte dokumentu hau prestatzera: alde batetik, ematen diren egoera askotarikoak, eta bestetik, hezkuntzako alderdi honek gure seme-alaben oreka pertsonalerako duen garrantziak.

Aurkezten dugun liburuxka hau ez da kontsultarako eskuliburu bat, erreferentzia puntu bat baizik, zuen seme edo alabaren garapena alderatu dezazuen liburuak eskaintzen dituen datu estatistikoekin. Halaber, portaera arduratsuak bereganatzeko prozesuaren barruan azterketa eta gogoetarako tresna izatea nahi dugu, bai gurasoentzat bai seme-alabentzat.



ZER DA ERANTZUKIZUNA?

Pertsona hezitzea pertsonari independentea izaten, bere kabuz moldatzen, erabakiak hartzen eta askatasunaz baliatzen laguntzea da, betiere bere ahalmenak norainokoak diren kontuan hartuta; baina hau guztia ez da bat-batean eskuragarria, aldiz, oso prozesu luzea eta ahalegintsua da, familiarekin hasi eta eskolan eta gizarteko beste giro batzuetan jarraitzen duena.

Erantzukizuna pertsona bakoitzak dagozkion ekintzen eta erabakien ardura bere gain hartzeko gaitasuna da, norberaren onura ezezik besteena ere bilatuz.

Hurrek egiten, pentsatzen eta erabakitzen dutenaren emaitzak onartzen ikasi behar dute. Inor ez da arduratsu jaiotzen. Ardura ekinaren ekinez eskuratzen da, helduak antzeratuz eta egitekoa egiteagatik gizartearen onespenearekin gogoia indarberrituz.

Haurrak bere burua gogobetean ikusten du erantzukizunez jokatzeko duenean eta gizartearen onespena jasotzen duenean, eta honek guztiak bere buruarekiko estimua indartzen du.

Zorionez, haur asko heldu arduratsu izatera iristen dira, nahiz eta gurasoek eta hezitzaileek egunero erantzukizunaren zentzua garatzeko egin behar izaten duten ahalegina nekeza izan.



Ez da erraza jakitea haur bati noraino exijitu ahal zaion, ezta bere adinari dagokion erantzukizunez noraino jokatu dezakeen ere, baina garapenaren etapa ezberdinak kontuan hartuz, honako ezaugarri hauek ikusten dira:

Bi eta hiru urte bitartean Zenbait lan egin ditzake helduaren kontrolpean. Oraindik ez du konprenitzen ongi edo gaizki egiten duen, eta aginduena eta debekuen arabera jokatzeko du, bere burua kontrolatzen ez duelako. Helduekin batera zenbait lantxo egiten ditu, esaterako, zapatak eta pijama txukundu eta gorde, landareak ureztatu, ezpainsapiak banatu edo/eta bildu eta abar.

Hiru eta lau urte bitartean Helduen portaera behatzen du eta horren arabera jokatzeko du. Aldi horretan besteak antzeratuz ikasten dute eta sariaren edo zigorraren arabera jokatzeko dute. Gero eta gaitasun handiagoa du bere buruaren jabe izateko eta bere gauzak antolatzeko. Jostailuak gordetzen ditu eta bildu egin behar ditu. Zenbait gauza erraz (mahai gainean goilareak eta sardeskak jarri) egin ditzake. Bakarrik biluztu eta besteen laguntzarekin jantzen da. Gauzak konpartitzen eta dagokion txandari itxaroten ikasten du. Gero eta gogo handiagoa agertzen du beste haur batzuekin jolasteko.



Lau eta bost urte bitartean

Helduaren portaera behatzen eta antzeratzen jarraitzen du. Gidatua izatea eskatzen du, baina atsegina izateko eta besteei zerbitzatzeko gogoia izaten du, eta hori dela eta, ekimen arduratsuak izaten ditu, esaterako, jantzi, jostailuak bildu, ikuskizunetan bere burua kontrolatu eta abar. Erantzukizunen bat eman ahal zaio, hala nola, mahaia jarri, animalaren bat zaindu edo familiaren barruko mandaturen bat egin. Anai-arreba txikiagoak zaindu ditzake, denbora laburrez eta heldua gertu dagoela. Erabiltzen dituen gauzak antolatuta utzi behar ditu. Nahiko autonomia da jaten, eta bere buruaren zaintzari dago-kionean, bakarrik janzten ditu oinetakoa, baita bere burua garbitu eta komunera joan ere. Jokoan txandak onartzen ditu, beti errespetatzen ez baditu ere. Beste bizpahiru haurrekin elkartu ohi da jolasteko eta lehenengo harremanak egiten ditu.



Bost eta sei urte bitartean

Jada portaera dexente ikasi ditu, eta helduek zer egin behar duen eta zer ez esatea eskatzen badu ere, komenigarria da aukerak eskaintzea, bata edo bestea aukera dezan. Etxeko zeregin errazen ardura har dezake, adibidez, hautsa kendu, mahai gainekoa bildu, jantzi behar dituen arropak prest utzi edo zeregin jakin baterako behar duena bilatu. Ez dugu ahaztu behar haurrak helduak imitatzen jarraitzen duela eta nahiko zorrotza dela legea guztiendako berdin aplikatzen. Mandatuak egitea eta zereginetan laguntzea atsegin du, baina ekidin behar dugu horrelakoak toki arriskutsuetan egitea. Hiru kide edo gehiagoko taldetan jolasten da, arau errazen arabera. Autonomia izaten saiatzen da eta helduen presioen aurrean matxina daiteke diziplina eta gizarte arau kontuetan. Bost urtetatik aurrera bere intenzionalitatea ernetzen hasten da, zenbait arau bere egiten ditu eta hauen arabera jokatzen du.

Sei eta zazpi urte bitartean

Lan bat egiteko materiala presta dezake eta prestatu beharko luke, baina besteek kontrolatuta eta lagunduta, nahigabeko hutsegiteak gerta baitaitezke. Ezagutzen dituen eta hurbil dauden tokietarako bidean (eskolara, auzokideen etxera, zenbait familiakiderenera eta abar) bere burua kontrolatzen du. Astean diru pixka bat gorde dezake, baita administratu ere, eta ikasi behar du duen dirua gastatzen badu hurrengo astera arte itxaron beharko duela diru gehiago jaso arte. Oraindik helduen arauen eta ohituren arabera jokatzeko du; berarentzat agintzen zaiona ona da, eta debekatzen zaiona edo helduei haserrea eragiten diena, berriz, txarra da.

Zortzi urte izan arte aginduak hitzez hitz betetzen ditu. Bere gastuak errazago kontrola ditzake. Sexu berekoekin harremanak egiteko joera du. Gizarte portaerak ikasten ditu, hala nola, agurtu eta eskerrak eman. Arduraz jokatzeko aukera ematen bazaio. Ona izan nahi du, eta hala ez bada, errua besteei edo unean uneko gorabeherari egozten die, ezin baitu jasan besteek gaiztoa dela pentsatzea.

Justiziaren kontzeptua bere egiten hasten da eta arau moralak konprenitzen ditu adibide jakinen bidez.

Zortzi urte dituenean,

autonomia pertsonala izaten hasten da eta bere bulkadak kontrola ditzake kasuan kasuko asmoen arabera. Denboraren, diruaren eta jokoen banaketan bere burua antolatzekeo gai da. Oraindik ere noiz edo noiz gainbegiratzea eskatzen du. Eguneroko ardurak eman ahal zaizkio: gosaria prestatu, bainua hartu, ikastetxera bakarrik joan eta abar.

Helduen nahia eta arauak bereizten ikasten du eta portaera kontsekuentea du. Konprenitzen du noiz eta nola jokatu behar duen bere bizitzako ohiko egoeretan. Aro horretan helduen jokaera erabakiorra izaten da: haurra nagusikeriaz estutzen badute, umea otzana eta esanekoa bihurtuko da eta ekimenik ez du garatuko. Haatik, berak nahi duena egiten uzten bazaio apetatsu eta arduragabe bihurtuko da. Aldi horretan ezinbestekoa da ekimena bultzatuko duen jarrera, exijentziari ere eusten zaion bitartean. Talde-jokoak gogoko ditu eta taldean lan egiten du.

Egiten duenak ekar ditzakeen ondorioak aurreikusteko gauza da.

Bederatzi eta hamaika urte bitartean

nahiko autonomoa da bere asmoetan eta, horrenbestez, bere erantzukizunean. Antolaketa propioa izaten du bere materialetarako, arropetarako, aurrez-kietarako... Etxeko lanen baten ardura bere gain har dezake eta erantzukizunez egin behar du, eta nahiko ongi egin ere. Egiten duenagatik ordaina ematea gogoko du.

Menpekotasun seinaleak ematen baditu ere, erabakiak hartzea atsegin du, baita helduei zorrotz kontra egitea ere. Bere irizpideez baliatuta aukeratzeko gauza da. Geroago eta zorrotzagoa eta exijenteagoa da.

Bere lagun taldean islatzen du bere burua; bertan kide bakoitzari eginkizun jakin bat dagokio eta taldeburuak zer esan, hura egiten da.

Okertzen denean halaxe onartzen du, beti aitzakiak bilatzen baditu ere; besteekin, ordea, oso zorrotza da. Erabakiak hartzea gustatzen zaio; besteen aurrean bere burua finkatzeko premia sentitzen du, eta hori dela-eta, besteek agindutakoa betetzeko erresistentzia eta bera baino txikiagoak diren haurrei agintzeko grina erakusten du. Bere ahalmenak ezagutzen ditu, eta zerbaitetan hasi aurretik gogoeta egin eta erabakiak hartzen ditu, ondorioetatik ikasten du, eta balio moralek erakartzen dute: justiziak, berdintasunak, egiazaletasunak, ontasunak eta abar.



**Hamaika
urtetatik
hamabi urte
bitartean**

Lagunen eragina erabakiorra izaten hasten da, eta bere portaera, hein batean, bere lagunengan edo ikaskideengan ikusten duenaren arabera izango da. Bere anai-arreba zaharragoek gurasoek baino eragin handiagoa dute berarengan. Aldi honetan maiz kritikatzeko dituzten gurasoak eta irakasleak; ez du atsegin besteek berarekin lardiaz jokatzeko, umeei jokatzeko den bezala; bere erabakiak hartzeko autonomia eskatzen du.

Lagunen beharra sentitzen du eta haiengan jartzen du bere konfiantza; lagun taldearekin leiala da eta bere moralak bere bezalakoak direnena da, eta hauen janzkera, jokoa, zaletasunak eta abar antzeratzen ditu. Helduak bezalakoak izan nahi du. Arduraren zentzumena garatzen du eta bere eginbeharrak egiten saiatzen da, eta bere iritzia ematerakoan malgutasun handiagoa agertzen du. Bere portaera hobea da familiaren inguruetik kanpo. Bere ekintzen alderdi onak eta txarrak bereizteko gaitasuna du, ondorioetan ere pentsa dezake, bere asmoak nahiko era objektiboan ezagutzen ditu eta bere ekimenaren arabera jokatu nahi du, hanka sartu arren.

Erantzukizuna pixkana-pixkana, etapaka, garatzen den gaitasuna da. Bakoitzaren izaera nolako den, eta nolako giroan bizi den (familia, eskola, auzoa eta abar), hala garatuko du arduraz jokatzeko gaitasuna. Hori dela eta, bakoitzak bere erritmoa du. Zaila izango da, beraz, erantzukizun maila berbera duten adin bereko haurrak aurkitzea. Haur batzuek erantzukizun handiagoa izango dute zenbait alderditan eta beste batzuek, berriz, beste batzuetan. Horrenbestez, azaldu ditugun aldi hauek ez dira estu-estu edo itxi-itxi ulertu behar, errenferentzia gisa baizik.

HAURRENTZAKO AHOLKUAK

Arduratsu izatea zentzuzko erabakiak hartzea eta nork bere ekintzen ondorioak bere egitea da, ondorioak nolanhikoak izanda ere. Garrantzitsua da, halaber, besteen onginahia bilatzea, zure gustuen gainetik, batzuetan nekeza izan arren; horrela egiten baduzu, zeurekoikeriaz jokatzen duzunean baino gogobetetze handiagoa izango duzu.

- 1 Ez duzu onartu behar jada zuk zeuk egin ditzakezun lanak besteek egitea: zeure burua garbitu, zure arropa zaindu, zure materialak eta jokoak garbitu eta antolatu.
- 2 Zerbait erabaki behar duzun bakoitzean, arrazoiak aztertu, zergatik egin edo hautatu duzun.
- 3 Egiten duzunak dakarren ondorioa onartu eta zure egin, hanka sartu arren. Gauzak gaizki egitetik ere ikasten da.
- 4 Antola ezazu zure eguneroko bizitza: ikasketak, ordutegiak, jolasteko denbora, etxeko lanak eta abar.
- 5 Eguneroko zure eginbeharren eta proiektuen zerrenda berrikusi behar duzu, eta eguna amaitutakoan zure asmo guztiak bete dituzun ikusi behar duzu. Eguneroko eginbeharren eta materialen agenda aldean eramaten baduzu, ikusiko duzu zein erreza den zeure burua antolatzea, eta gauza guztiak egiteko denbora izango duzu.
- 6 Saia saitez arduratsua izaten eskolako materialekin nahiz zure gauzekin, eta ahal baduzu, ez galdu deus.
- 7 Etxean lagundu behar duzu, dena ongi joan dadin eta inork lan eskerga ez dezan hartu bere gain. Bete ezazu ongi agintzen dizutena, ongi portatzen bazara besteak gusturago egongo baitira.



- 8 Etxeko arauak eta ordutegia bete behar dira. Gainera, horrela harremanak hobeak izaten dira, eta guztiak alaiago daude tirabirarik ez dagoenean edo inori ezertaz ere ohartarazi behar ez zaionean.
- 9 Zure lagunak errespetatu itzazu eta joka ezazu haiekin haiek zurekin jokatzeko nahiko zenukeen bezala. Lagundu iezaiezu eskatzen dizutenean edo zure beharra dutela ikusten duzunean.
- 10 Parte har ezazu jokoetan, nahiz eta oso gustukoak ez izan.
- 11 Aukera itzazu zure lagunak, baina ez ahaztu zure gurasoen aholkuak lagungarriak izan daitezkeela; eskarmentu handia dute eta maite zaituzte.



- 12 Ikasgelako azalpenetan eta eginbeharretan interes eta arreta osoa jarri behar duzu, gehiegi interesatzen ez bazaizkizu ere. Ariketa hau oso lagungarria izango zaizu bizitzako beste jarduerak batzuetan kontzentrazioa kontrolatzeko.
- 13 Ikasitakoa egunero erreparatu lan handia aurrerazten digu. Ikasitakoa ez da ahazten, eta ez duzu egun bakar batean buruz ikasi beharko eskolan emandako guztia. Proba egin ezazu eta ikusiko duzu emaitzak onak direla.
- 14 Kalea, auzoa, ikastetxea, hiria, lorategiak... zurek ere badira. Zurek eta besteenak diren aldetik, garbitzeaz eta zaintzeaz arduratu behar duzu.



GURASOENTZAKO JARRAIBIDEAK

Haurren lehen urteetan erantzukizuna jokoari lotu behar zaio, eta ondoren, pixkana-pixkana hain atseginak ez diren beste jarduera batzuei ere lotuko zaie, "eginbeharraren" urratsa egin arte. Ikaskuntza hau beste antzeratuz egiten da, eta exijentzia, itxaropen argia eta denbora luzea eskatzen ditu.

Haur guztiek jokoaren eta lanaren arteko oreka eskatzen dute; nork bere burua zaintzea eta etxeko lanak egitea baliagarria izan daiteke erantzukizun jakin batzuetan treba daitezen.

Konbentzituta egon behar duzue zuen seme-alabak bideratuko dituzuela nahi duzuen bidetik, eta haien ahalbideetan konfiantza izan behar duzue.

Zer egin seme-alabei zerbait egi- teko agindu aurretik?

Oso garbi eduki behar dira familiakide bakoitzaren ardurak, eta idatzi ere egin daitezke kortxoeko taula batean. Bakoitzak jakin behar du zer, nola eta noiz egin behar duen, ardura har dezan, etxeko lan komunetan lankidetzan egon dadin eta familiakide bakar batek lan guztia bere gain har ez dezan. Halaxe jokatzeko bada, eraginkortasun eta bizi kalitate handiagoa lortuko da.

Beharrezkoa da haurrekin bizi diren helduak ados jartzea haurrei exijitu behar zaizkien erantzukizunetan.

Familiakideen arteko koherentzia eza, hots, exijitu edo baimendu behar zaionari buruzko desadostasunak argudio bilakatzen dira haurrentzat etxeko lanak behar bezala ez egiteko, baita ez egiteko ere. Batzuetan hauxe entzuten dugu: "Aitak uzten dit..."



Helduok noraino garen arduratsuak hausnartzea komenigarria da. Haurrei ezin diegu exijitu geure buruari exijitzen ez dioguna.

Lan bat, adibidez, jostailuak antolatzea, eskatu edo proposatu aurretik, beharrezkoa da ikustea toki egokirik eta nahiko denborarik ba ote duen, eta ea ongi egiteko gutxienezko ezagutza duen.

Seme-alaba arduratsuak hezi ahal izateko, gurasoek pazientziaz eta tolerantziaz jokatu behar dute. Komenigarria da kontuan hartzea lan guztiak ezin dituztela ondo egin, akatsak izan ditzaketela eta hanka sartzea ikasprozesurako lagungarria izan daitekeela.



Zer egin lan bat egiteko agintzerakoan?

Berarengan konfiantza duzula erakutsi, ongi egiteko gai dela sentiarazi eta segurtasuna transmititu: "Gaur bakarrik jantzi behar duzu zeure burua, eta badakit ongi egingo duzula"

Argi eta garbi eta hitz gutxitan azaldu zer nahi duzun berak egitea eta frogatu ea ongi ulertu duen. Maiz gertatzen da haurra beste entretenigarri batean murgilduta egotea eta behar adinako arretarik ez jartzea.

Ondoko hauek bezalako mezuak saihestu: "Nik neuk egingo dut, den-dena gaizki egiten duzulako". Hauek bezalako mezuekin haurraren autoestimuari ez diegu onik egiten, bere motibazioa zapuzten dugu eta pikutara bidaltzen ditugu hobetzeko egiten ari den ahaleginak.

Zer egin haurrak lan batean hasi ondoren?

Inoiz ez ezazu egin seme-alabek beren kabuz egin dezaketena. Estutu ez daitezzen zuk haien lana egiten baduzu oker zabiltza.

Ikus norainokoak diren zure haurraren ahalbideak eta bilakaera, eta egoki ezazu exigentzia maila eta erantzukizun maila hazten doan heinean. Beti lagun-du behar zaio urratsez urrats aurrera egiten erantzukizunaren bidean barna.

Zenbaitetan komenigarria bi aukera ematea: jokoetan (partxisa edo karta jokoa), arropan (gona edo galtzak), aisialdia (futbola edo paseoa). Aukera eginez erabakiak hartzen ikasten du. Aukeratzen duenean, badago konpromiso bat, baita arrisku bat ere: aukeratzen duena bizitzeko konpromisoa eta hanka sartzeko arriskua. Horrela, haurrak etsipena eramaten eta egiten duenaren ondorioak bere gain hartzen ikasten du.

Ez iezaiozu utzi hautatu duen lana alde batera uzten, hala eginez gero, irmotasunik ez izaten lagunduko baitiozu eta jokabide apetatsu eta oldarkorrek izan baititzake.



Autonomia pertsonalean eta erantzukizun azturetan ematen dituen aurrerapausoak arretaz behatu. Hitz goxo bat edo keinu amultsu bat aski izan daitezke ikasitakoa finkatzeko, eta motibagarria ere izan daiteke berriro ekiteko adorea izateko. Aurreratzen duenean zure onespena azaltzen badiozu, bere jokamoldea indartuko duzu.

Oso garrantzitsua da umea ohitzea arreta jartzen eta bere portaera kontrolatzen; esaterako, mandatu edo lanen bat egiteko esaten badiozu edo agindu bat ematen badiozu, froga ezazu ea ulertu duen zuk berarengandik espero duzuna, eta ez ezazu agindua errepikatu. Agindua behin eta berriro errepikatzen badiozu, horretara ohituko da eta ez du arretarik jarriko. Gauzak maiz ahazten baditu, zigor dezakezu, horrela haurraren borondatea eta zintzotasuna heziko dituzu.

Komenigarria da alde zuzenetik argi azaltzea aginduak ez direla bitan emango eta arretaz egon ezean, ondorioak pairatuko dituela.

Komenigarria da arretaz behatzea gauzak nola egiten dituen, eta unean uneko laguntza ematea behar duenean.

Lan luze eta konplexuetan beharrezkoa da lana zatikatzea, eta haurrari berak bakarrik egin dezakeen zatiren bat egiten uztea. Adibidez, jantzen irakasteko, lehenengo nola erantzi irakasten zaio; ondoren, prakak nola altxatu, galtzerdiak nola jantzi eta abar, eta azkenik, bere burua jantzen ikasiko du.

Zer egin lana amaitu duenean?

Kontrolatu noraino eta nola egin duen lana.

Lana ez badu egin, ahaztu zaiolako, ondorioak pairatu beharko ditu.

Haurrak egin duena balioztatu eta kuttunki adierazi, eta zure poza erakutsi familiari laguntzen diolako.

Lana ez badu amaitu edo ez badu ongi burutu, lehenengo eta behin, bere jarrera balora ezazu, alderdi positiboak nabarmendu eta zertan hobetu dezakeen adierazi.

Konfiantza adieraz iezaiozu, oker egindakoa zuzentzeko aukera emaiozu eta anima ezazu berriro saiatzera.

Zer egin lan bat egiteari ezetz esaten dionean?

Portaera honen azpian hainbat arrazoi egon daitezke:

Gatazka pertsonala, jeloskortasuna, zenbait adinetan kontra egiteko izaten den joera, desobedientzia patologikoa; kasu hauetan lehentasuna eman behar zaio arazo afektiboa konpontzeari.

Eskuarki jarrera arduragabe baten ondorioak pairatu ez izana. Adibidez, gosea pasatzea ogitartekoa eraman ez duenean, ikastetxera berandu iritea autobusa galtzeagatik eta abar. Horrenbestez, beharrezkoa izango da seme-alabek euren erabakien ondorio naturalak pairatzea, onerako eta txarrerako, hanka-sartzeetatik eta ahazteetatik ikas dezaten.

Mehatxuak edo zigorrak ez aplikatzea. Mehatxu egin edo zigor bat jarri aurretik komenigarria da pentsatzea ea aplikatzerik badagoen, eta ea egokia edo proportzionatua den.

Haurrak ez dela gai adierazten du, "Ez dakit" edo "Ezin dut" esanez. Gurasoek ikusiko dute ezgaitasuna erreal den, eta animatuko dute lana egitera, eta laguntzaren beharra badu, lagunduko diote.

Aitzakiak bilatzea lana ez egiteko. Aitzakia besterik ez duela agerian jarri behar da, arrazoiak emanez. Exijentziari sendo eutsi behar zaio amore eman gabe.

Aurka egitea eta "Ez dut nahi" esatea. Haurraren garapen prozesuko aldi batez aurka egitea nortasuna garatzeko baliabide bat izan daiteke. Mintzatzeko egokierak eta aukerak ematen badira, seguraski ez da horrelakorik gertatuko. Dena dela, lasaitasunez eta koherentziaz jokatu behar da. Lasaitasunez, uneko tentsiorik ez eragiteko, eta koherentziaz, egin duenaren ondorioak argi eta garbi azaltzeko eta jasanarazteko. Horretan gurasoak irmotasunez jokatu behar dute.



Arduratsua izatea ez da bakarrik agindutakoa zuzen betetzea. Hori obedientzia izango litzateke. Zerbait gehiago da, erabakitzen jakitea eta nork bere erabakiak hartzea modu eraginkorreetan norberaren heldutasun edo eskarmentuaren arabera.

Haurrari txiki-txikitatik eman behar zaio aukera bere jokoak, arropa... aukeratzeko, baita zein liburu irakurtzea nahi duen edo askaltzeko zer jan nahi duen erabakitzeko. Hautaketa egin ondoren, azkeneraino eraman behar du eta ez zaie jokaera apetatsuei biderik eman behar. Hautaketa oker baten ondorioak pairatu behar ditu. Adibidez, asperdura, nekea, ondoeza eta abar. Hautaketa horrek zuhurragoa izaten eta hautatu behar duenaren aldeko eta kontrako alderdiak baloratzen lagunduko dio.

Erabakiak hartzen ikasteak bere beharrak eta besteenak asetzen lagunduko dio.

Zalantza arduragabekeria forma bat da, hots, norberari dagokiona besteen bizkar uztea, norbera egiten ausartzen ez delako edo ez duelako egin nahi.

Haur txikiek sarri ez dute ezer erabakitzen, baina hala ere horretarako egokierak eskaini behar zaizkie. Hasieran erakutsi egin behar zaie, bi aukera eman: Zer nahi duzu askaltzeko: txorizoa edo mortadela? Zer jertse jantzi nahi duzu: gorria edo urdina? Zer erosiko diogu zure anaiari: jostailu bat edo puzzle bat? Ondoren, hiru aukera edo gehiago aurkeztu ahal zaizkio, eta aukeratzeko duenean, aukera hori zergatik egin duen esan beharko du.

Bere erabakiaren arrazoiak emanaraziz apetaz ez jokatzen irakasten zaio.

Oso garrantzitsua da hurrek familiaren beste erabaki batzuetan ere parte hartzea, eta aldi berean, gurasoek aldeko eta kontrako alderdiak nola aztertzen dituzten ikustea.

Hurrek sarri galdetzen dute: **Zer egingo dut?** Eta erantzuten zaienean, erantzunari muzin egiten diote. Modu horretan helduaren aurrean euren burua nabarmendu nahi dute, edo erabakiak hartzeko gai ez direla erakusten dute.

Haurrak bere buruarengan konfiantza gutxi badu, lagundu beharko diogu arrisku gutxiko aukerak eskainiz eta aukera bat edo bestea egiteko jarraibideak eman: **Zer nahiago duzu plazara eraman, baloia edo txirridula?. Zer jango dugu postreerako, sagarra edo jogurta?**

Ona da gurasoek seme-alabei iradokizunak eskatzea eguneroko arazoren bat konpontzeko.

Seme edo alaba bati erabakiak hartzen laguntzeko ondoko urratsak egin daitezke:

Aukera bakarra gogo onez onar dezan irakatsi, ikuspegi positiboa emanez. "Gaur bisita izango dugu eta ezin izango dituzu telebistako marrazki bizidunak ikusi, baina oso ongi pasatuko duzu zure lehengusuekin jolasten".

Aukeren kopurua handitu. Hamar urtetatik aurrera hainbat aukera aurkeztu ahal zaizkie, hala nola, ikastetxeek aurkezten dituzten eskolaz kanpoko jardueren artean aukeratzeko parada eman eta abar. Beraiek aukera bakoitzaren alde onak eta txarrak aztertu behar dituzte.

Aukera gutxiren artean aukeratzen irakatsi. "Goazen parkera. Zer hartuko dugu, txirrindula edo patinak?".

Erabaki bat hartu ondoren plana aldaraztera behartzen duten ustegabeak onartzen irakatsi.

Haiek aukerak proposatzera bultzatu. Ondoren familiako kide guztien artean baloratu ko dira, modu eraikitzailean.

Gure helburu nagusietako bat, gurasoak garen aldetik, gure seme-alabak pixkana-pixkana bizitzako eremu ezberdinetan gizarteratzea da, euren betebeharrak eta eskubideak ezagutzuz, eta gero eta heldutasun eta erantzukizun handiagoarekin.

Planteamendu hau aplikatzen badugu, menpekotasun egoerak, heldugabetasun soziala eta segurtasun eza ekidingo ditugu. Komenigarria da seme-alabei erakustea familiak aurrera egiten duela kide guztiek, bakoitzak ahal duen heinean, haren beharrak hasetzen badituzte.

Maiz gurasoei entzuten diegu: "**Nire semea zoriontsua izatea nahi dut**", eta uste dute horretarako biderik onena hurrek bidean aurkitzen dituzten zailtasunak saihestea dela, haien nahia berehala betetzea, eskatzen duten guztia ematea edo kontra egiten dutenean amore ematea. Baina honelako jokabideek hurrari mementoan poza eta atsegina ekarriko badiote ere, epe ertain eta luzean eragozpen bilakatuko dira, eta elurrezko bola baten moduan, ardura garatzeko bidean oztopo bilakatuko dira.

Gure seme-alabak zailtasunetatik edo nahigabeetatik libratzea, adinagatik beraiei dagozkien gauzak guk egitea... ez da batere ona, pertsona ahulak eta erabakitze gaitasunik gabeak izatea ahalbidetuko ditugulako, eta, finean, euren heziketa pertsonalaren prozesu naturala geldiaraziko dugulako.

Nagusikeria forma guztiak baztertu behar dira. Gure etxeko arauak gutxi eta argiak izan behar dira, eta ongi ulertarazi behar dira.

Umeak jakin behar du zer egin behar duen eta zer ez, baita hitza ez betetzeak ekar diezazkiokeen ondorioak ere. Era berean, gurasoek jarrera permisiboak saihestu eta hurrak ahalegin eta erantzukizun gaitasuna euren gaitasuna ditzaten hezi behar dituzte.

Arauk maitasunetik ezarri behar dira, eta ez diegu urduritasunari, apetari eta haurra menperatzeko nahiri gailentzen utzi behar. Arauk modu positiboan azaldu behar dira eta ez debeku zerrenda bat bailitzan; arau bakoitzaren arrazoiak ere eman behar dira, gure seme-alabek hauen zergatiak uler ditzaten, eta eurek bakoitzari pentsa eta erabaki dezaten, besteen agindurik gabe.

Garrantzitsua da arretaz egotea, ongi portatzen direnean maiz gorestekoa eta jokabide horiek indartzeko. Batzuetan errieta egiten diegu eta ongi eginga ez diegu aitortzen, eta horren ondorioz ekimen berriei ekiteko ilusio txikia izaten dute, eta horrekin batera, autoestimua jaisten zaie.


Argi utzi behar diogu bere portaera desegokia dela haserrarazten eta nahigabetzen gaituena, baina, pertsona eta seme/alaba den aldetik, berdin maite dugula. Erabat baztertu behar ditugu ondoko hauek bezalako mesprezuak: "Banekien gaizki egingo zenuela" "Ez duzu ezertarako balio!"

Gure seme-alabak arduratsuak eta diziplinadunak izatea lortu ahal izateko, ez dugu ahaztu behar gizakiok ekinaren ekinez ikasten dugula. Hitzak haizeak eramaten ditu; eredia da sakoneraino iristen dena; hau dela eta, gurasook eredu paregabea gara aztura arduratsuak eskuratzeko prozesuan. Horregatik, ezinbestekoa da geure burua eguneroko ekintzetan diziplinaz, kontrolez eta segurtasunez agertzea haien aurrean.



**Saia zaituz
ondokoak
ekiditen**

- 1 - Semea/alaba barregarri uzten duten konparaketak.
- 2 - Antsietatea, beldurra edo segurtasun eza dakartzaten hitzak eta mesprezuzko hitzak.
- 3 - Oihuak, mehatxuak eta gauzak itsuski esatea.
- 4 - Zure semea aginduak besterik jasotzen ez dituen pertsona pasibotzat hartzea.
- 5 - Gehiegizko babesa.
- 6 - Gurasoen arteko desadostasunak agertzea seme-alaben aurrean.

- 
- 1 - Haurra errealismoz eta zehaztasunez goresteko egokierak bilatu.
 - 2 - Zure seme-alabek errepikatzea nahi ez dituzun ekintzei muga egokiak eta zehatzak jarri.
 - 3 - Portaera arauak garbi utzi.
 - 4 - Haien ahalegina aintzat hartu eta baloratu, eta ez bakarrik azken emaitza.
 - 5 - Gogoia transmititu eta zure seme-alaben kontu eta interesetan inplikatu.
 - 6 - Zailtasunen aurrean bakarrik moldatu behar duela konprenitu eta gauzak ongi egiten dituenen zorionak eman.
 - 7 - Haien esana pazientziatzat entzun, inolako interferentziarik (telebista, irrati...) gabe.
 - 8 - Kontuan hartu beraientzat erreferentzia ereduak zaretela une orotan eta imitatuko zaituztetela.
 - 9 - Seme-alaben parte-hartzea bultzatu, zenbait erabaki har ditzaten eta zenbait aukeren artean hauta dezaten.
 - 10 - Zure seme-alabak euren bizipenak kontatzera bultzatu, konfiantza eta solas giroa sortzeko.
 - 11 - Egokia iruditzen ez zaizuen portaeraz ohartarazi eta ez nahasi aurreko beste portaera batzuekin.
 - 12 - Euren burua modu errealistan ikusten lagundu, dituzten balioak eta zailtasunak aintzat hartuz.

**Ondoko hau
praktikatu eta
gogoan izan**

Jarraibide hauen arabera jokatzeko badugu, seme-alaba diziplinatuak heziko ditugu, egoera ezberdinei aurre egiten jakingo dutenak, euren beharrak eta nahiak ingurukoek dituzten beharretara egokituz, baina nortasuna galdu gabe.

Nork bere burua diziplinatzeak ahalbidetzen du, gainera, norberaren buruan pentsatzeari uztea, autonomia eta librea delako eta berekoikeria alde batera utz dezakeelako, besteenganatuz eta besteei afektua eta ulerkortasuna emanez.

Arduratsu izateak besteekiko errespetua sortarazten du, eta noski, norberaren buruarekiko ere bai; adiskidetasun osasuntsuak, sendoak eta iraunkorrak ahalbidetzen ditu. Gure seme-alabak libreagoak eta zoriontsuagoak izango dira.

GALDESORTAK

Ondoren bi galdesorta proposatzen dizkizuegu, gurasoek eta seme-alabek erantzukizun azturak irakasten eta ikasten nola jokatzaren duten aztertzekeko lagungarriak izango direnak.

Lehenengo galdesorta gurasoendako da. Biek batera edo bakoitzak bere aldetik erantzun diezaiokete. Garrantzitsuena bien arteko bat etortzeak eta desadostasunak aztertzea da, horrek ahalbidetuko baitu haien jokabidea aldatzea eta heziketa ildo koherente bati heltzea. Bistan da irizpide desberdinak beti izango direla, bi pertsona desberdinez ari baikara, baina normalak eta ohikoak diren desberdintasun horiek ez gaituzte eraman behar heziketa estilo kontraesankorretara, horrek harridura eta ziurtasun falta eragingo bailie-ke gure seme-alabei, ez bailukete jakingo nori kasu egin.

Bigarren galdesorta haurrentzako da. Umeek beraiek bakarrik edo laguntzarekin bete dezakete, adinaren arabera. Galdetegia betetzen laguntzen bazaie, galderak irakurri eta ulertaraziko zaizkie, baina ez da haien askatasuna muga dezakeen iruzkinik egingo. Hori bai, beraiek aukeratutako erantzuna marka daiteke. Komenigarria da gurasoek haurren galdetegiari aldeztatik erantzutea; horrela gurasoen ikuspuntua eta haurrena aldera ditzakegu, baita desberdintasunei buruz eztabaidatu ere, ondoren familia harremanak hobetzen eta ohitura arduratsuak ikasten lagunduko diguten xedeak ezartzeko.

GURASOENTZAKO Ziur saiatu zarela seme-alaba arduratsuak hezitzen.

GALDESORTA Nola egiten duzu?

Jarraian galdera batzuk aurkezten dizkizugu, seme-alabekin nola jokatzeko moduarekin bat badator, **BAI** hitza biribil batez markatu behar duzu. Aldiz, inoiz gutxitan jokatzeko moduarekin bat badator, **EZ** hitza markatu behar duzu.

Aita edo ama gisa hezkuntzari buruz dituzun jarreretan eta printzipioetan pentsatu beharko duzu, eta esaldia zure jokatzeko moduarekin bat badator, **BAI** hitza biribil batez markatu behar duzu. Aldiz, inoiz gutxitan jokatzeko moduarekin bat badator, **EZ** hitza markatu behar duzu.

Ez utzi galderarik erantzun gabe.

Gurasoek galdesorta honi elkarrekin edo bakarka erantzun diezaiokete.



- 1 Zure seme-alabak kontrolatzen dituzu mandaturen bat egitera bidaltzen dituzunean?..... **BAI EZ**
- 2 Seme-alabek amaitu behar dituzte bere gain hartzen dituzten lanak edo konpromisoak..... **BAI EZ**
- 3 Hauek bezalakoak botatzen dituzu: "Nahiago dut nik egin, azkarrago eta hobeto egiten baitut..... **BAI EZ**
- 4 Uzten al diezu zure seme-alabei euren erabakien ondorioak pairatzen?..... **BAI EZ**
- 5 Izaten al duzue desadostasunik zuen seme-alabek dituzten erantzukizunei buruz? (ordutegiak, norberaren zaintza, etxeko lanak)..... **BAI EZ**
- 6 Zure seme edo alabari lanen bat jartzen diozunean argi jakinarazten al diozu nola egin behar duen eta zer espero duzun berarengandik?..... **BAI EZ**
- 7 Zuen etxean familiakide bakoitzaren erantzukizunak argi zehaztuta daude..... **BAI EZ**
- 8 Zure seme-alabei parada ematen diezu jokoak, arropak, aisialdiko ekintzak eta abar aukeratzek..... **BAI EZ**
- 9 Behin eta birritan aginduak errepikatzen dituzu seme edo alabaren batek erantzuten ez duenean edo agindutakoa betetzen ez duenean..... **BAI EZ**
- 10 Uzten al diozu zure seme edo alabari lanak bakarrik egiten, nahiz eta emaitza ez izan zuk nahi zenuena?..... **BAI EZ**
- 11 Zure semeak edo alabak ardura eskatzen duen zerbait bere kabuz egiten duenean, baloratzen al duzu goraiamenen, laudorioen edo maitasun agerpenen bidez?..... **BAI EZ**
- 12 Zuen seme-alabei zerbait eskatu edo agindu aurretik adostu egiten duzue..... **BAI EZ**
- 13 Seme edo alabaren batek agindutakoa egiten ez duenean edo gaizki egiten badu, hauek bezalako hitzak esaten al dizkiozu: "Ezin zaizu ezer egiten utzi" edo "Ezertarako ere ez duzu balio"..... **BAI EZ**
- 14 Zure seme-alabei lanen bat jartzen diezunean, jakinarazten al diezu euren ahalmenetan sinesten duzula, "Badakit ongi egingo duzula" edo antzeko esaldiekin?..... **BAI EZ**
- 15 Zure seme-alabak inpendienteak izan daitezten eta irizpide propioak izan ditzaten hezitzen al dituzu? **BAI EZ**

- 16 Zure seme-alabei hazten diren neurrian euren adinarekin bat etorriko diren erantzukizun berriak jartzen al dizkiezu? **BAI EZ**
- 17 Uzten al diezu seme-alabei aski denbora eta espazio euren gauzak antola ditzaten? **BAI EZ**
- 18 Zure seme-alabei eginbehar anitz egiten al dizkiezu estutu ez daitezen?..... **BAI EZ**
- 19 Eskuarki uzten al diezu haiek aukeratutako lan edo joko batean hasi ondoren berehala hura alde batera uzten?..... **BAI EZ**
- 20 Exijitzen al diozu zure seme edo alabari hartu duen konpromisoari eustea?..... **BAI EZ**

PUNTU 1 BALIO DUTEN ERANTZUNAK

1. BAI	2. BAI	3. EZ	4. BAI	5. EZ	6. BAI	7. BAI
8. BAI	9. EZ	10. BAI	11. BAI	12. BAI	13. EZ	14. BAI
15. BAI	16. BAI	17. BAI	18. EZ	19. EZ	20. BAI	

Taulan agertzen diren erantzunekin bat datorren erantzun bakoitzeko, puntu bat batu ezazu.

- 0 eta 12 puntu bitartean:** Zure seme-alaben heziketari arreta gehiago eskaini behar diozu. Komeni zaizu liburuxka honetan azaltzen diren aholkuak ongi ikastea eta praktikan jartzea.
- 12 eta 16 puntu bitartean:** Saia zaitetz hobetzen eta zure seme-alaben heziketari buruzko hainbat jokabide aldatzen. Irakur itzazu arretaz liburuxka honetan agertzen diren aholkuak.
- 16 puntu baino gehiago:** **Zorionak!** Egoki jokatzeko duzu. Dena dela, zure seme-alabek aurrerapen ildo berari jarraitzen dioten egiazta ezazu, eta ez arretarik galdu.

HAURRENTZAKO ERANTZUKIZUN GALDESORTA

Ondoko galdesortak hainbat galdera biltzen ditu, **BAI** edo **EZ** erantzuteko.

Galdera hauek zure erantzukizun maila neurtzeko balio dute. Hau dela eta, komenigarria da egia erantzutea. Galderak oso pertsonalak dira eta bakoitzak uste duena erantzun behar du.

Biribil batez **BAI** edo **EZ** markatu behar duzu.

Adibidez : "Gauzak galdu egiten ditut"

Gauzak erraz galtzen badituzu, markatu **BAI**

Normalean gauzak ez badituzu galtzen, markatu **EZ**

Galdera guztiei erantzun behar zaie. Ezin da batere utzi erantzun gabe.


Galderaren batek bi erantzunak, **BAI** eta **EZ**, onartzen ahal baditu, maiztasun irizpidea aplikatuko da eta ikusiko da norberaren izaeratik eta jokaeratik hurbilen dagoe-na zein den.

Galderak bata bestearen atzetik erantzun beharrekoak dira. Erantzuterakoan pentsatu pixka bat eta ez ezazu lasterka egin.

Galderak ulertzeko laguntza behar baduzu, esaiezu gurasoei galderak irakurtzeko, baina gero zuk esan behar duzu erantzuna **BAI** ala **EZ** den.

- 1 Neure burua garbitzen dut jaiki bezain fite, inork gogorarazi gabe..... BAI EZ
- 2 Prestatzen didatena jaten dut, beste janari batzuk gogokoago izan arren..... BAI EZ
- 3 Ematen didaten dirua antolatzen dut (gastatzen dut, baina aurreztu ere bai)..... BAI EZ
- 4 Beti joaten naiz nire lagunek esaten duten tokira..... BAI EZ
- 5 Eskolako ekintzetan interes handiz parte hartzen dut..... BAI EZ
- 6 Agindutakoa maiz ez dut betetzen..... BAI EZ
- 7 Etxeko antolaketa eta garbiketa lanetan parte hartzen dut..... BAI EZ
- 8 Egunero ikasi eta etxeko lanak egiten ditut..... BAI EZ
- 9 Denonak diren gauzak (zakarrontziak, eserlekuak, zuhaitzak, farolak eta abar) errespetatzen ditut..... BAI EZ
- 10 Parte hartzen dut taldeka lanen bat egiten dugunean..... BAI EZ
- 11 Zaila gertatzen zait erabakitzea zer edo zer hautatu behar dudanean (jokoak, jarduerak eta abar)..... BAI EZ
- 12 Nire jantziak zaintzen ditut eta nire armairuan antolatzen ditut..... BAI EZ
- 13 Bakarrik lan egin dezaket, ikuskaririk edo laguntzarik gabe..... BAI EZ
- 14 Ematen dizkidaten aginduak eztabaidatzen ditut..... BAI EZ
- 15 Nire gurasoei garaiz entregatzen dizkiet ikastetxeko mezuak edo notak..... BAI EZ
- 16 Dendetan salgaiak ukitzeagatik noizbait ohartarazi naute..... BAI EZ
- 17 Etxeko lanak eta jokoak egiteko denbora antolatzen dut..... BAI EZ
- 18 Galtzen dudanean jokatzeari uzten diot, jokia amaitu gabe egonda ere..... BAI EZ
- 19 Ikasten hasten naizenean beharrezkoa dena prestatzen dut denborarik ez galtzeko..... BAI EZ

- 20 Hainbat gauza egiten ditut egitearen arrazoian erreparatu gabe..... BAI EZ
- 21 Etxean eginarazten dizkidaten lanak ongi eta garaiz egiten saiatzen naiz..... BAI EZ
- 22 Nire lagunei laguntzen diet nire beharra dutela ikusten dudanean..... BAI EZ
- 23 Etxeko lanak egin behar ditudala gogorarazi behar didate beti..... BAI EZ
- 24 Zakarrontziak eta edukiontziak beti erabiltzen ditut gauzak botatzeko..... BAI EZ
- 25 Borroka maiz egiten dut, arrazoia dudala uste dudalako..... BAI EZ
- 26 Eskolan arretaz entzuten ditut irakaslearen azalpenak..... BAI EZ
- 27 Landareak eta lorategiak errespetatzen ditut eta ez ditut izorratzen..... BAI EZ
- 28 Zer nahi, hura beti gauzatzen dut..... BAI EZ
- 29 Lanak erdizka uzten ditut beti..... BAI EZ
- 30 Nik neuk hautatzen ditut neure lagunak..... BAI EZ
- 31 Zerbait gaizki ateratzen zaidanean errua besteei leporatzen diet..... BAI EZ
- 32 Jaietan ongi portatzen naiz eta ez dut bihurrikeriarik egiten..... BAI EZ
- 33 Jokoetan biziki eta gogoz parte hartzen dut..... BAI EZ
- 34 Egunero janzten ditudan jantziak neuk aukeratzen ditut..... BAI EZ
- 35 Neure gauzak egiteaz bakarrik arduratzen naiz eta etxean ez dut laguntzen..... BAI EZ
- 36 Bidaltzen dizkidaten lanak amaitu gabe utzi ohi ditut..... BAI EZ
- 37 Noizbait ateetan, bainugeletan, igogailuetan eta abarretan marraztu edo idatzi dut..... BAI EZ
- 38 Ordu jakin batean oheratzea gogorra egiten zait eta kontra egiten dut ohera joateko agintzen didatenean..... BAI EZ
- 39 Sarri gauzak galtzen ditut..... BAI EZ

- 
- 40 Nire erruak onartzea nekeza egiten zait..... BAI EZ
- 41 Patata frijituak, gozokiak, izozkiak eta abar jateko moduari dagokionez, etxean bezala jaten ditut kaleko banku batean nagoenean..... BAI EZ
- 42 Egunero gogora ekartzen ditut etxeko lanak, ikasi behar dudana eta eskolara eraman beharrekoak..... BAI EZ
- 43 Aitzakiak bilatzen ditut erraz irabazi ezin ditzaketan jokoetan parte ez hartzeko..... BAI EZ
- 44 Etxeko lanen bat egiteko badut, telebista itzaltzen dut, ikusten nagoen teleaioa oso gogoko izan arren..... BAI EZ
- 45 Etxeko, eskolako eta bestelako ordutegiak betetzen ditut..... BAI EZ
- 46 Eskolara eramaten ditut egunero behar ditudan materialak..... BAI EZ
- 47 Toki publikoetan (zinema, autobusa, dendak eta abar) berdin zait besteei enbarazu egiten badiet..... BAI EZ
- 48 Zerbait agintzen didatenean, adibidez, "atera zakarra", beste bati esaten diot egin dezala..... BAI EZ
- 49 Jokoetan galtzaile izaten naizenean nire jokokideen erruagatik izaten da..... BAI EZ
- 50 Bidaltzen dizkidaten mandatuak ongi egiten saiatzen naiz..... BAI EZ

Berrikus itzazu galderak eta ez utzi bat ere erantzun barik.

PUNTU 1 BALIO DUTEN ERANTZUNAK

1. BAI	2. BAI	3. BAI	4. EZ	5. BAI	6. EZ	7. BAI
8. BAI	9. BAI	10. BAI	11. EZ	12. BAI	13. BAI	14. EZ
15. BAI	16. EZ	17. BAI	18. EZ	19. BAI	20. EZ	21. BAI
22. BAI	23. EZ	24. BAI	25. EZ	26. BAI	27. BAI	28. BAI
29. EZ	30. BAI	31. EZ	32. BAI	33. BAI	34. BAI	35. EZ
36. EZ	37. EZ	38. EZ	39. EZ	40. EZ	41. BAI	42. BAI
43. EZ	44. BAI	45. BAI	46. BAI	47. EZ	48. EZ	49. EZ
50. BAI						

Aldera itzazu zuk emandako erantzunak taulan agertzen direnekin. Taulakoekin bat datorren erantzun bakoitzak puntu bat balio du. Batu lortutako puntu guztiak eta ikus noraino zaren erantzule.

- 0 eta 30 puntu bitartean** Oraindik ez duzu garatu zure adinari dagokion erantzukizuna eta premiazko laguntza behar duzu zure gurasoen eta irakasleen aldetik. Arretaz irakur itzazu ondoren datozen iradokizunak eta praktikan jar itzazu lehenbailehen.
- 30 eta 40 puntu bitartean** Nahiko arduratsua bazara ere, komenigarria da hobetzea eta aurrera egitea oraindik gainditu gabe dituzun alderdietan. Irakur ezazu hurrengo orrialdean ageri diren aholkuak eta egin ezazu gogoeta asmatu gabeko galderei buruz.
- 40 puntutik gora** **Zorionak!** Horrela jarraitu behar duzu. Hala ere, iradokizunak irakurri ahal dituzu aurrerapausuak eman ditzazun.

The image features a solid orange background with several overlapping, semi-transparent rectangular shapes in various shades of orange and light beige. A thin, dark orange horizontal line runs across the middle of the page. The text 'ERANSKINA' is positioned in the upper left quadrant.

ERANSKINA

Hiru urte

**Jantzi**

Bakarrik erazten da eta laguntzarekin jantzen hasten da.

Ez du jantzien atzeko eta aurreko alde bereizten.

**Garbitu**

Eskuak garbitu eta lehortzeko gauza da.

Bainugelara bakarrik joaten da, baina laguntza behar du.

**Jan**

Goilara erabiltzen badaki eta bakarrik jaten du janari askorik bota gabe.

Lau urte

**Jantzi**

Bere burua jantzi eta erantzi dezake laguntza gutxiarekin.

Jantzien aurrekoa eta atzekoa bereizten ditu eta botoiak lotu ditzake.

**Garbitu**

Esfinterrak kontrolatzen ditu eta bainugelara bakarrik joan nahi du.

Bere aurpegia bakarrik garbitzen eta lehortzen du, eta hortzak garbitzen ditu.

**Jan**

Autonomiaz jaten du eta sardeska eta goilarea erabiltzen ditu.

**Kalean ibili**

Bere burua kontrola dezake eta gelditu egiten da zeharkatu aurretik, helduen aginduaren zain geratzen da.

Lo egin

Lo egiteko ordutegiak betetzen ditu, nahiz eta pixka bat aurka egin.

- Jokoetan parte hartzen du, baina hiru edo lau haurrez osaturiko taldeetan egiten du.
- Bere txanda itxoiten badaki eta dagokionean parte hartzen du.




- Joko-txandak onartzen ditu, nahiz eta beti errespetatu ez.
- Familia edo eskolako egoerak antzetzuz jokoak egiten ditu.
- Irudimenezko lagunak asmatzen ditu.
- Jolasean talde txikietan parte hartzen du eta talde-jokoetan parte hartzea gogoko du.



- Atsegina izaten saiatzen da eta galdetzen du: "Horrela egiten da?".
- Bere erabakiak atzeratu ditzake arrazoiak ematen bazaizkio.
- Hitzezko aginduak zintzo betetzen ditu.
- Oraindik ere aurka egiteko eta ezezka ibiltzeko krisialdixoren bat izaten du.
- Bere bizitzan ordena eta egunerokotasuna behar ditu.

- Ulertzen hasia da etxean badirela arauak etxeko gauzak egiteko.
- Oso sentibera da indargarri eta laudorioen aurrean.
- Etxeko animaliak zaintzen laguntzen du.
- Mandatu errazak egiten ditu. Mahaia zuzen jartzen du.
- Erantzukizunen bat izatea gogoko du.




- Irakaslearen aginduak zintzo betetzen ditu.
- Bere etxetik eskolara eramaten dituen jostailu eta gauzen ardura bere gain hartzen du batzuetan.
- Bere txanda itxaron dezake galderak egiteko edo bere lanak berrikusteko.

- Oso sentibera da laudorioak hartzerakoan eta bere lana txalotzea espero du.
- Ikastetxe barruan mandatuak egin ditzake.
- Familiaren mandatuak ikastetxera eraman ditzake eta alderantziz.



- Pertsona heldua antzeratzen du eta berarekin lan egiten du.



- Gauzak ongi edo gaizki dauden jakin nahi izaten du.
- Zer edo zer gaizki egiten duenean onartzen du, beti ez bada ere.
- Txanpon batez zer eros daitekeen badaki.

Bost urte

**Jantzi**

Janzen eta eranzten autonomoa da, nahiz eta jantzi batzuekin eta zapaten korapiloekin arazoak izan ditzakeen.

**Garbitu**

Nahiko autonomoa da eta gogorazten bazaio aurpegia eta eskuak garbitzen ditu otorduen aurretik. Bere burua bainatzen du, helduak gidatuta.

**Jan**

Ongi jaten du eta labana erabiltzen hasten da.

Sei urte

**Garbitu**

Bakarrik hartzen du bainua, nahiz eta bainua prest izatea eskatzen duen.



Bakarrik orrazten du bere burua ile motza badu

Jantzi

Bakarrik janzen da eta laguntzarekin jantziak presta ditzake.

**Jan**

Bakarrik jaten du eta janari berriak dastatzea gogoko du.

Lo egin

Gau osoan egiten du lo eta esnarazitakoan jeikitzen da (ez entzunarena egin dezake)

**Ordena**

Lan handia da berarentzat gauzak antolatzea eta zaintzea.

**Kalean ibili**

Oso toki ezagun eta hurbiletan autonomoa da.

- Beste haur batzuekin jolasten da eta ekimenak baditu.
- Besteei agintzea eta anai-arreba txikiak babestea gogoko du.
- Oraindik baditu gogoko antzeratzeko jokoak: postariak, sendagileak, irakasleak, eta abar.
- Joko arau errazak ulertu eta errespetatzen ditu.


- Hiru edo gehiagoko taldeetan jolasten da. Ikaskideei leporatzen die errua.
- Ez du begi onez ikusten jokoan galtzea eta irabazteko azpijokoak egiten ditu.
- Jokoaren arauak ulertzeko gai da.



- Dendan mandatuak egiten ditu kalea zeharkatu gabe eta ordaintzea gogoko du.
- Ematen zaion dirua gastatzen du, ez du dirurik aurrezten, baina nahiko begiratzen du dirua gastatu aurretik.
- Etxean laguntzea gustatzen zaio eta helduari kontrola eta onespena eskatzen dizkio.
- Esan txarrekoaren irudia eman dezake lehenengoan kasu egitea kostatzen zaiolako.
- Bere jostailuak gordetzen ditu.

- Pentsa dezake helduak ez direla justuak zigortzen dutenean.
- Lan handia da berarentzat gauzak zaintzea eta oraindik ere galdu eta hausten ditu.
- Amaren laguntzarekin bere jantziak aukera ditzake.
- Jarraibide argiak eta errazak behar ditu etxeko lantxoak egiteko.
- Batzuetan "ez dut nahi" esan dezake zereginen bat eginarazten bazaio.
- Bi aukeratatik bat har dezake baina ez daki arrazoirik ematen.
- Besteek berari eginbeharrak enkargatzea gogoko du.

- Bere eskolako lanak etxera eramatea gogoko du etxekoei erakusteko.
- Jarraibide argiak behar ditu, gauzak ongi egin nahi dituelako.



- Pentsa dezake irakasleak bidegabeki zigortzen duela.
- Jarraibide argiak eta errezak behar ditu bere lanak egiteko.



- Helduak agindutakoa ona da eta debekatzen zaiona, berriz, txarra.
- Puntualtasun eta antolaketa arauak konprenitzen eta errespetatzen ditu.
- Badaki noiz portatzen den ongi.
- Bere burua zuritzen du eta beste bati egozten dio.

- Ona edo gaiztoa da helduen onspenaren arabera.
- Batzuetan ez daki bere jokaera ona edo txarra den.
- Bere errua ukatzen du zuzenean galdetzen bazaio, baina onartzen du horrela galdetzen zaionean: Nola egin duzu?
- Agintzen zaiona hitzez hitz betetzen du.

Zazpi urte

**Jantziak eta ordena**

Bere jantziak antolatu eta zaintzeko gauza da.

Gustatzen zaio besteek bera laudotzea bere burua bakarrik eta laster jantzen duenean.

Zapatak garbi ditzake.

**Lo egin**

Bakarrik oheratu eta jeikitzen da.

Garbitu

Laguntzarik gabe bainua hartzen du.

Nagikeriaz baina bere burua garbitzen du.

Kalean ibili

Auzoan erosketak egin ditzake.



Zortzi urte

**Jantzi, jan eta garbitu**

Autonomoa da, noiz edo noiz begiratu behar bazaio ere.

Bere jantziak aukeratzen ditu eguraldiaren eta gorabeheren arabera.

Ordena


Bere gauzak edukitzea eta antolatzea gogoko du, baina denbora eta leku egokia behar ditu. Jantziak zaindu, zintzilikatu eta antolatzen ditu.



- Bere lagunaren oso laguna da eta gaizki sentitzen da ziria sartzen badiote edo gezurra esaten badiote
- Besteak salatu ditzake zer edo zer gaizki egiten badute.
- Sexu bereko taldeetan parte hartu ohi du.
- Talde-jokoetan parte hartzen du eta galtzea ez du gogoko.



- Talde-jokoetan parte hartzen du, arauak errespetatzen ditu eta taldearekiko harremanak onak dira.
- Lankide ona da eta ekimena du.



- Etxeko mandatuak egin ditzake: ogia, esnea eta egunkaria erosi, zakarra atera, telefonoa hartu, eta gustatzen zaio lan hauen ordainetan dirua jasotzea.
- Bere dirua kontrola dezake aurreztuz, eta horrela kapritxoren bat eros dezake.
- Esanekoa bada ere, mementoan ez ditu betebeharrak betetzen, "Itxaron minutu batez" esan ohi du.
- Jarraibide zehatzak behar ditu, eta eskatzen ditu zereginen bat egin aurretik.
- Etxeko lanetan gustura laguntzen du.


- Bere materiala eta motxila antola ditzake.
- Bidaltzen zaizkion eginbeharrei buruzko jarraibideak behar ditu.



- Justiziaren sena badu eta jakin badaki noiz jokutzen duen ongi.
- Ongiaren eta gaizkiaren arauen arabera bizi da.
- Ongi portatzearen kezka badu, batzuetan lortzen ez badu ere.
- Kritikak hunkitzen du, eta negarrari eman diezaiokie.

- Erantzukizunak eman ahal zaizkio eta helduaren menpekotasunetik aldentzen hasten da.
- Abaguneak eman behar zaizkio ohiko egoeretan autonomiaz joka dezan.
- Gorabeheretara egokitzeko gauza da eta zentzuz jokatzeko du.
- Esanekoa da, zenbaitetan behin baino gehiagotan errepikatu behar bazaio ere.
- Sariren bat lortzeko lan egiten du. Begirada bakar bat aski izan daiteke bere portaera kontrolatzeko.
- Laudorioen aurrean oso sentibera da. Bere etxeko lanengatik diru apur bat biltzea gogoko du.

- Eskolako lanekin arduratsua da.
- Denbora antolatzeko gauza da pixka bat gainbegiratzen bazaio.



- Egoera sozialean badaki bere burua moldatzen eta egoki jokatzeko.
- Araua zorrozki errespetatzen du. Egia esaten du kontu garrantzitsuetan.
- Bere ekintzen erantzulea da, eta badaki errua aitortzen eta barkamena eskatzen.
- Badu erantzukizunaren sena eta bere ekintzetan kontsekuentea izaten saiatzen da.

Bederatzi urte

- Zaintza pertsonalari dagokionez nahiko autonomia da, baina oraindik ere gogorarazi behar zaio.
- Oheratzeko ordua atzeratu ohi du.
- Badauka bere antolamendua, eta ez du gogoko besteek bere gauzak ukitzea, ezta bere gela berrikustea ere.
- Ikastetxera bakarrik joan nahi du. Ez zaio gustatzen lagunduta joatea.
- Lehia eta norgehiagoka asko gustatzen zaizkio.
- Sexu bereko adiskidea bilatzen du eta betiko izango delakoan dago.
- Jokoetan sexu berekoekin jolasten da eta beste sexukoak zirikatzen ditu.
- Bere lagunekin leiala da eta ezizen amultsuak gogoko ditu.
- Arauak dituzten jokoak maite ditu eta zerbait sakratutzat hartzen ditu.



Hamar urte

- Bere eguneroko zereginak planifikatzen ditu eta bere burua administratzen du besteen kontrolik gabe.
- Badaki bere denbora banatzen eta egin behar duena egiten du.
- Mandatuak egin ditzake, nahiz eta denda urruti egon.
- Bere zaintza pertsonala zabar dezake.
- Oheratzeko duen ordutegiarekin ez dago ados.
- Erabaki arrazoituak hartzen ditu.
- Bere gustu eta zaletasunen arabera aukeratzen ditu lagunak eta laguntaldean integratzea gustuko du.
- Sexu bereko laguntaldeetan ibiltzen da, beste sexukoengandik urrun.
- Bere adiskideekin leialak dira.
- Kirolak eta arauak dituzten kaleko jokoak atsegin ditu.
- Badaki lagunekin batzarrak antolatzen.

- Gurasoen nagusitasuna zalantzan jartzen hasten da eta tirabirak ager daitezke.
- Bere anai-arreba txikiagoen babesle ikusten du bere burua.
- Besteek erantzukizuna bere gain uztea gogoko du eta arduratsua izaten ahalegintzen da.
- Etxeko lantxoak egiten ditu eta konponketa errazak egiten laguntzen du.
- Familian gustura sentitzen da.
- Besteek goraiapatzea izugarri gustatzen zaio.



- Familia jardueretan parte hartzea gogoko du. Bera baina helduago direnen agintea zalantzan jartzen hasten da.
- Bere anai-arreba txikiagoak zaintzen eta babesten ditu.
- Gela berarentzako bakarrik behar du. Etxeko lanak egitea ez du gogoko (ezta besteen aginduak jasotzea ere).
- Bere gain hartzen dituen konpromisoak betetzen ditu. Zigorrik jartzen bazaio protesta egiten du.
- "Bere bihurrikeriak" familiari ezkutatzeko joera du.

- Materialak prestatzeko gai da eta saiatzzen da tokietara garaiz iristen.
- Diziplina onartzen du zailtasun handirik gabe eta eskola arauetara egokitzen da.
- Eskolan disfrutatzen du eta bere ikaskideekin ere bai.
- Bere eginbeharra antolatzeko gauza da jarraibideen arabera egiten badu.
- Egiten duenarekin pozik egon ohi da.



- Bere kabuz pentsatzen du eta ez da edozein erantzunekin pozik geratzen.
- Eskolara joatea gogoko du eta ikasten disfrutatzen du.
- Irakasleek balio soziala duten zereginak haien esku utzi ditzakete.
- Eginbeharretan aurrera egiten du, gero aisialdia izateko eta ustegaberik ez izateko.
- Ikastetetan oraindik ez da oso arduratsua eta begiratu behar zaio.
- Taldeka hobeto egiten du lan.

- Taldearen interesak bere interesen gainetik jartzen ditu.
- Bere harremanetan portaera zaintzen badaki, eta besteen ikusmoldeak konprenitzen ditu.
- Bere morala oraindik ere bere gurasoena edo irakasleena da.
- Zorrotza da, eta ez du beste planteamendurik onartzen, ulertzen saiatzzen bada ere.
- Justizia bilatzen du eta bidegabekeria ez du jasaten.
- Helduen jokaerarekin kritikoa izan daiteke.



- Kode moral zorrotza eta zurruna izateko joera du.
- Ongia eta gaizkia interesatzen zaizkio.
- Gizalegezko arauak ikasteari garrantzia ematen dio.
- Elkartasun eta lankidetzazalea da.
- Laguntaldearekin ibiltzen da auzoan.
- Objektiboki kritikatzzen du eta besteen ikusmoldea onartzen du.
- Justizia berarentzat garrantzitsua bilakatzen da.

Hamaika urte

- Autonomoa eta selektiboa da.
- Jantziak eta janariak aukeratzen ditu.
- Jaten apetatsua da. Zenbait janari alde batera uzten ditu.
- Garbiketa pertsonalean nagitsua eta zabarra izan ohi da.
- Adiskideekin denbora luzea ematen du.
- Oso kritikoa bihurtzen da lagunekin eta huskeriak direla eta haserretu egiten da.
- Ariketa fisikoko eta lehiako jokoekin gozatzen du.
- Adin honetan kezka soziala nagusitzen da.

Hamabi urte

- Adin honetan oso autonomoak izan ohi dira euren buruaren zaintzarekin zerikusia duen guztiarekin.
- Asmo onak dituzte, nahiz eta sarri gauza pertsonalekin zabarrak izan.
- Aldarte gorabeherak eta aldaketa handiak izaten dituzte egun batetik bestera.
- Bere burua den bezala onartzen du.
- Toki batetik bestera ibiltzeko autonomoa da.
- Batzuetan ausart eta oldarkor agertzen da.
- Taldearen menpe dago.
- Bere lagunengan konfiantza du eta taldearen arauak hausten dituenak baztertu eta salatzen du.
- Haur helduekin ibiltzen da eta ez du gogoko haurra bailitzan tratatzea.
- Bere lagunekin zinemara joaten da.



- Ordutegiak kostata betetzen ditu.
- Eginbeharrei uko egiten die, ez badira berriak eta atseginak.
- Etxean eta etxetik kanpo egiten duenaren artean alde handia dago.
- Agintea dutenekin tirabirak ditu eta matxinatzen da.



- Konfiantza gutxiago du gurasoengan eta anai-arreba zaharrengan.
- Haur gehienek egin beharrekoak (eskolakoak eta familia artekoak) autonomiaz egiten dituzte.

- Ingurune fisiko eta soziala ezagutzeko jakinmina agertzen du.
- Ikasteko motibazio pertsonala erakusten du, irakasleekin kritikoa izaten da.
- Oro har etxeko lanekin arduratsua da.

- Nekarazten duten lanak ez ditu begi onez ikusten.
- Azterketa eta kalifikazioekin kezka handia agertzen du.
- Ikasteko grina du.
- Taldean hobeto egiten du lan.



- Besteen beharren kontzientzia hartzen hasten da, eta besteei ematen, eskerrak ematen eta ahal duen heinean laguntzen ikasten du.
- Besteak juzkatzen oso zorrotza da.
- Bere iritzi pertsonalak jendaurrean azaltzea gogoko du.
- Justuak iruditzen zaizkion arauak onartu eta absurduak iruditzen zaizkionak baztertzen ditu.
- Bere eskubideak defendatzen ditu. Ez da hain zorrotza eta arrazoiak aurki ditzake bere ikusmoldeak justifikatzeko.
- Zentzumen etiko errealista du, batzuetan antisozialki jokatzeko badu ere.
- Bere erantzukizunaren zentzuak besteen onerako jokatzera bultzatzen du.



Nafarroako Gobernua
Hezkuntza Departamentua



9 788423 524945